



2002/04/10eko prentsa-oharra

HERIOTZEN ESTATISTIKA (HERE)2001eko hirugarren hiruhilekoa

2001EKO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN, HERIOTZAK %9,5 IGO ZIREN, AURREKO URTEKO HIRUHILEKO BERAREN ALDEAN

2001eko uztail, abuztu eta irailean, 4.166 pertsona hil ziren; horietatik, %53 gizonezkoak izan ziren eta %47 emakumezkoak

2001eko hirugarren hiruhilekoan, 4.166 pertsona hil ziren Euskal AEn, aurreko urteko aldi berean baino %9,5 gehiago, EUSTATen azken datuen arabera. Herrialdeka, Araban 503 pertsona hil ziren, 2.303 Bizkaian eta 1.360 Gipuzkoan.

Heriotza-kausa nagusia tumoreak izan ziren: 1.347 pertsona hil ziren kausa horrengatik (%32,3); haren atzetik, bigarren heriotza-kausa gisa, zirkulazio-sistemako gaixotasunak agertzen dira, 1.230 heriotza eragin baitzituzten (%29,5). Hirugarren tokia, eta urrunago, arnas aparatuko gaixotasunek bete zuten, 340 heriotza eragin baitzituzten (%8,2).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak baino hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren.

2001eko hirugarren hiruhilekoan gertatuko heriotzen artean, 21 urtebetetik beheragoko haurrei egokitu zitzaizkien, 11 mutikori eta 10 neskatori.

Hazkunde begetatiboak zeinu positiboa izan zuen 2001eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn, 300 pertsonako biztanle-gehikuntzarekin. Herrialdeka, saldo positiboa izan ziren Araban eta Gipuzkoan, biztanleria igo egin baitzen (134 eta 200 biztanle, hurrenez hurren). Bizkaian, aldiz, heriotzen kopurua jaiotzena baino handiagoa izan zen (-29).

Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa (behin-behineko datuak)

	2001eko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2001eko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2000ko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.166		4.168		3.805	
Gizonezkoak	2.210	53,0	2.231	53,5	2.070	54,4
Emakumezkoak	1.956	47,0	1.937	46,5	1.735	45,6
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.166		4.168		3.805	
Tumoreak	1.347	32,3	1.325	31,8	1.266	33,3
Zirkulazio-sistema	1.230	29,5	1.306	31,3	1.160	30,5
Arnas sistema	340	8,2	356	8,5	335	8,8
Txegoste-sistema	233	5,6	230	5,5	209	5,5
Istripuak	157	3,8	155	3,7	190	5,0
Gainerako gaixotasunak	859	20,6	796	19,1	645	17,0
GIZONEZKOAK	2.210		2.231		2.070	
Tumoreak	847	38,3	855	38,3	784	37,9
Zirkulazio-sistema	547	24,8	596	26,7	559	27,0
Arnas sistema	217	9,8	217	9,7	190	9,2
Txegoste-sistema	136	6,2	127	5,7	105	5,1
Istripuak	107	4,8	108	4,8	139	6,7
Gainerako gaixotasunak	356	16,1	328	14,7	293	14,2
EMAKUMEZKOAK	1.956		1.937		1.735	
Tumoreak	500	25,6	470	24,3	482	27,8
Zirkulazio-sistema	683	34,9	710	36,7	601	34,6
Arnas sistema	123	6,3	139	7,2	145	8,4
Txegoste-sistema	97	5,0	103	5,3	104	6,0
Istripuak	50	2,6	47	2,4	51	2,9
Gainerako gaixotasunak	503	25,7	468	24,2	352	20,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganuza Zabalo
	Tel:+34-945-01 75 34 Fax:+34-945-01 75 01
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es